


# BERRIGARA

34. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1991, irailak 27



**Musikari izateko  
eskola**




**San  
Miguelak  
Angiozarren**



**Kilometroak:  
Astebete  
geratzen da**



**Igerilarien  
festa Bergaran**




**kutxa**

gipuzkoa  
donostia kutxa

# BERGARAKO UDAL KIROL ZERBITZUA

## ✓ Gazte eta nagusiendako iharduerak

IHARDUERA	TOKIA	EGUNAK / DATAK	ADINA	ORDUAK	PREZIOAK
TENISA	KIROLDEGIA	Urriak 8 - Azaroak 7 Azaroak 12 - Abenduak 12 Astearte eta ostegunetan	14tik aurrera	19.30 - 20.30	1.000 bazkideak 1.500 gainontzekoak
IGERIKETA	IGERILEKUEYAN	Urriak 8 - Azaroak 5 Azaroak 6 - Abenduak 3 Abenduak 4 - Urtarrilak 13	5etik aurrera	7.00 - 7.45 8.00 - 8.45 15.00 - 15.45 16.00 - 16.45 17.00 - 17.45 17.45 - 18.30	4.300 18 urtetik beharagoentzat 5.400 18 urtetik goragoentzat 1.500
MANTENIMEDU GIMNASIA	Goizez KIROLDEGIAN  Arratsaldean MTEZ. DE IRALAN	Astearte, asteazken eta ostiralean  Astelehen, asteazkena eta ostiralean	16tik aurrera	10.00 - 11.00  19.30 - 20.30	1.500 bazkideak 2.000 gainontzekoak (hilabetero)
JAZZ GIMNASIA	INSTITUTOAN	astearte eta ostegunetan	16tik aurrera	20.00 - 21.00	1.000 bazkideak 1.500 gainontzekoak (hilabetero)
3. ADINEKOEN GIMNASIA	MARISABELEN GIMNASIOAN	Astelehen, astearte eta ostegunetan	60tik aurrera	10.00 - 11.00	Dohain



Sar ezazu kirola zure bizitzan

✓ Udal Kirol Eskolak

KIROLA	TOKIA	EGUNAK	ORDUAK	ADINA
ATLESTIMOA	MTEZ. DE IRALAN	Astelehena, asteazkena eta ostirala	5.30etatik - 6.30etara 6.30etatik - 7.30etara	6 - 11 12 - 15
ESKUBALOA	SEMINARIOAN KIROLDEGIAN	Astel., asteaz., ostir., Astearte, osteguna	5.30etatik - 6.30etara 5.30etatik - 7.30etara	8 - 11 12 - 15
GIMNASIA ERRITMIKOA	MARIAREN LAGUNDIA	Astel., asteaz., ostir., Astearte, osteguna	5.30etatik - 8.30etara 5.30etatik - 7.00etara	6 - 14
KIROL ASKOTAKOA	INSTITUTOAN	Asteazkena eta ostirala	5.30etatik - 7.00etara	8 - 15
XAKEA	ZABALOTEGI DORREAN	Astelehena, asteazkena eta ostirala	7.00etatik - 8.30etara	7 - 16
KARATEA	MTEZ. DE IRALAN	Astearte eta osteguna	6.00etatik - 7.00etara	7 - 15
BADMINTONA	SAN MIGUEL FRONTOIAN	Astearte, osteguna eta larunbata	5.30etatik - 7.00etara 10.00etatik - 12.00etara	6 - 15
PILOTA	SAN MIGUEL FRONTOIAN	Astelehen eta ostegunetan	7.00etatik - 9.00etara	7 - 15
IGERIKETA Hobekuntza maila bazkideentzat	IGERILEKUAN	Astelehena, asteazkena eta ostirala	6.30etatik - 7.30etara	11 - 14
SASKIBALOA	MTEZ. DE IRALAN	Astelehena, asteazkena eta ostirala	5.30etatik - 6.30etara	10 - 14

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako  
Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezibar

**Erredakzioa:**

Eneko Azkarate. Eduardo  
Mendibil

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate. Eduardo  
Mendibil

**Publizitatea eta  
harpidetzak:**

Ignazio Irigolien. Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose  
Angel Mikeo, Estepan Plazaola  
eta Juan Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.  
Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhua  
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Mikel Elkoroberezibar, Josune  
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber  
Aretxaga eta Ainhua Bikuña

**Argazki laborategia:** A.  
Gallastegi, B. Cantero, M.

Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,  
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,  
Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-  
Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**  
Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txanxangorri  
Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta eritzien erantzunkiz-  
unik.



## Urretxindorrek eta Ameslariak

laukoteek Kultur Hamabostaldiaren barruan  
larunbat honetan ospatuko den *Herri Jaialdian*  
parte hartuko dute. Hogei urte ixilean egon  
ondoren berriz ere jendaurrean. Beraiekin batera  
dantza saioak, bertsolariak, txiste kontalariak,  
etab. Larunbatean gaueko 10.30etan Frontoian.

## LARUNBATA 28

- Kontzertuak:
- Aretxabaletan Gazte-  
txean *Los del Rayo*.
- Azkoitia Gaztetxean  
*Pikutara eta Reincidentes*  
23etan.

- Oñatin Gaztetxean *Pi-  
perrak eta Cicatriz* 22etan.

• **Kilometroak 91:**  
-Mendiko bizikleten Gi-  
puzkoako *Txapelketa* 17e-  
tan.

- *Jolas iharduerak* Ago-  
rrosinen 11.00etan.

• **Triatloia:**  
- Gipuzkoako igerilariek  
triatloi proba jokatuko  
dute Agorrosinen goize-  
ko 11.30etan

## IGANDEA 29

- Kontzertua:
- Bergaran Gaztetxean  
*Lunatics*.

## ASTEARTEA 1

• **Kilometroak 91:**  
- Mahai-ingurua UNED-  
en arratsaldeko 20.00e-  
tan. Gaia: Kirola.

## ASTEAZKENA 2


• **Kilometroak 91:**  
- Kontzertua: Musika Es-  
kolako saioa Seminario-  
ko elizan 19.30etan.

## FARMAZIAK



- 28 Camacho / Gaez:
- Azcoaga (Arrasaten)
- 29 Camacho / Gaez:
- Español (Arrasaten)
- 30 Puy / Gaez Cor-  
cuera (Arrasaten)
- 1 Guallar
- 2 Estella
- 3 Mozos
- 4 Camacho

## ZINEA



*Besame antes  
de morir.*

- **LARUNBATA:** 5, 7.30  
eta 10.30etan.
- **IGANDEAN:** 5, 7.30  
eta 10.15etan.
- **ASTELEHENEAN:**  
7.30etan

## La Masa

• **IGANDEAN:** Goizeko  
11.30etan.

## OGIA



Ogisun

## ANTIA HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi  
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



Barrankale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

Pintxoak, eguneroko menua  
eta karta bereziak ditugu.

Betiko eta oraingo  
sukaldaritza.

# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

# Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

# LXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

# Pepelu

ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

## Adi irakurle!!

Datorren astean ale berezia aterako dugu **Kilometroak 91** Bergaran ospatzen dela eta. Ostiralero 2.500 errebista banatzen badira, egun horretarako **20.000** botako ditugu, **portada koloretan** eta guzti!!

Beraz, ez duzu ohizkoa den bezala, **Berrigararik** ostiralean zure buzoian jasoko. **Kilometroetako zirkuitoan banatuko ditugu.**

Horrelako ale berezi bat ateratzeak izugarritzko diru kostua duenez, eskatuko dizugu zure **borondatea** errebista jasotzerakoan.

Bestalde, **biltzen den dirua Kilometroakentzako** joango da.

Egun eder bat igaro eta hurrengo igandera arte.

### Euskaraz beti !!

**K**ontutan harturik Kilometro eguna bertan dugula, gizarte erdaldun honi euskeraren mezua zabaldu nahi diogu.

Kilometro eguna, egun bakarra izan arren, bere helburua ez da egun hortakoa soilik, baizik eta egunerokoa.

Beraz, Bergarako Euskal Herriaren Euskaraz-ek gonbidatzen zaitu eginbehar hori zentzuz betetzera.

Bergarako E.H.E

### Pizinak berriro

**P**izinetako ordutegi berriaren inguruan zerbait esan nahi nuke; abuztu osoan, oraindik ez dakit zergatik, goizeko 11etan zabaldu dute eta orain, lehenago iluntzen duela aitzakitzat hartuz, 10etan zabaldu eta 8etan ixten dute. Adarra jotzen ala? Udal zerbitzu bat izanik, uste dut gutxienez 12 ordutan egon beharko liratekeela zabalik.

Andres U.

## Tiira ba!



## Josu Okina

### □ San Juan

*San Juango* auzoak ere badu bere auzo alkatea, aurreko zenbakian bere izena paper artean galdu bazitzaigun ere. *Juan Mari Arana* izango da legealdi honetan auzo horretako arazoetaz arduratuko den gizona.

### □ Piraguismoa

*Udal Kirol Zerbitzuak* eta *Beti Busti* taldeak piraguismo ikastaroak antolatu dituzte datozen bi astebukaeretarako. Ikastaroak larunbatetik iganderarte luzatuko dira Arabako urtegian eta bidaiari, egonaldia, materiala eta ikastaroaren prezioa 2.000 pezetakoa da. Plaza mugatuak dira eta izena eman nahi dutenek Udal Kirol Zerbitzuaren bulegora jo behar izango dute.



## San Miguelak

Astebukaera honetan *Angiozarko* auzoak bere jaiak ospatuko ditu. *Angiozartarrek* egitarau interesgarria prestatu dute *San Miguel* beraien patroia jaietan primeran pasatzeko. Ostiralean, olinpiadak, auzoko pirotekniaren erakusketa..., denetarik izango da. Gauean, dantzaldia, *Ke-pa Junkera*, *Zabaleta* eta *Imanolekin*. Larunbate-

an, aipagarri *Angiozarko* dultzaineroekin egingo den *San Miguelen* omezezko txikiteo zerutiarra, zezen mekanikoa eta, nola ez, goizaldera banatuko den txokolatea *bolau* ta guzti.

Igandean, *San Miguel* eguna, *Meza Nagusia* izango da goizeko 11etan *Angiozarren* eta ordubete beranduago *San Migueleko* ermitan.

### □ Emakumeak

*Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* kaleratu du jadanik bere aldizkariaren 5. zenbakia. Azken zenbaki honetan emakumearen sexualitatea eta depresioari buruzko gaiak, indarrean dagoen lejislatzioari buruzkoak, hainbat albiste eta gomendio eta, *Anaje Narbaiza* eta *Kontxi Irizar* zinegotzietatik egindako elkarrizketak jasotzen dira.

### □ Musika Eskola

Datorren astezkenean urriak 2, *Bergarako Musika Eskolako* Tipleen Abesbatza, Akordeoi Boskotea, Haize Boskotea eta Soka Taldeak Seminarioko Eleizan kontzertua eskeiniko dute arratsaldeko 7 t'erdietan.

## Sutea Uberan

Joan den ostiral goizean, kortozirkuito batek eraginda, sute bat izan zen *Uberako Idarra* baserrian.

Horren ondorioz, *Zenitagoia* anaiak untxientzako borda bezala erabiltzen zuten baserria erabat kiskaldu zen eta lau paretak besterik ez dira zutik geratu.

Kalteak kalkulaezinak dira oraingoz eta *Zenitagoia* anaiak ostiral goizean sua itzaltzen ibili zen jendeari bere laguntza eskertu nahi diete lerro hauen bidez.



Siberian - husky's  
arrasako txakurra  
salgai.



Parasitogabetua  
Txertatua  
Perigraduna

Tfnoa: 76 14 79

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**□ Ollagorria**

Ollagorria Ehiza eta Arrantza Elkarteak bihar, hilak 28, goizeko 10etan Igeltseritza zaharreko amorrain haztegia berriztatzeke lanetan parte hartzeko dei egiten du.

**□ Besaide**

Bihar larunbata Arrasateko Monterron Jauregian Nazioarteko Eskultura Erakusketa inaguratuko da Besaide gainaren egokitu eta txukuntzea ospatzeko antolatutako ekintzen barne.



**Aktibitate programa**

Urriaren lehenengo astetik urte amaiera bitartea Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak iharduera programa zabala prestatu du. Horrela, urriaren 6tik aurrera, astelehenero, debate taldeak izango dira Kultur Etxean. Era berean, eskulan eta sukaldaritza ikastaroak bi taldetan emango dira; bata asteartetan eta ostegunetan bestea. Azkenik, yoga ikastaro bat ere izango da asteazken eta ostiraletan Mizpirualde Egoitzan. Ikastaro hauek dohainik izango dira langabetu eta etxekoandreentzat.



**Kanpiña Bergaran**

Uda garaia amaitzen ari dela aprobetxatuz, Kilometroakeko antolatzaileek erabilera berri bat eman nahi diete Bergarako igerilekuei datorren astebukaeran. Joan den ostiraleko prentsaurrekoan jakitera eman zutenez, urriaren 6rako kanpotik datozenek kanpoko igerilekuak erabili ahal izango dituzte akanpatzeko. Posibilitate ezberdinak aztertu eta Udalaren baimena jaso ondoren 1. mailako kanpiña bertan kokatzea erabaki zen.

**□ Institutua**

Bergarako Batxillergo Institutuko ikasleek gaur ostirala, hilak 27, izan dute 91-92 ikasturtearen aurkezpena eta beraz astelehenetik aurrera klaseak ematen hasiko dira.

**□ Ehiza**

Euskadin ehizi xeheko denboraldiaren hasiera orokorra urriaren 12an izango den arren, igandean, hilak 29, Gipuzkoan uso migratzaile eta birigarroen ehiza-garaia zabalduko da.

**TOKI-EDER**

**Taberna**


**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84



**KONDE PANADEROKUA**  
Burdiñate 1  
BERGARA

**SANTOS IRRATI - TB**



**TB-Soinua-Bideoa**  
**Antena instalazioak**  
**Kanal Pribatuak**  
**Sukalderako altzariak**  
**Argiztapenak**

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA

# K Hamabostaldia

*Astebete geratzen da...*

✓ *Herri Jaialdia* izango da larunbatean Pelotalekuan gaueko 10 t'erdietan. Bertan *Ameslariak, Urretxindorrak, dantzariak, trikitalariak* etab. luze batek hartuko dute parte. Aurkezle *Juan Martin Elexpuru* eta *Maite Aristegi* arituko dira.

✓ *Simon Arrieta, Fernando Azkargorta, Moises Eguren* eta *Joakin Loidi* margolari bergararren inguruan antolatutako erakusketa *Kultur Etxean* ikusgai urriaren 6ra arte.

✓ Larunbat honetan, hilak 28, *Bergara Hiria I. Mountain Bike saria* jokatu da. Edozein herri-tarrek parte hartu ahal izango du eta *Gipuzkoako Txapelketarako* balioak izango da.

✓ *Ikastola Aranzadiko Arkakuso* taldeak *Kilometroaken* egunean aldizkaritxo bat argitaratu du Ikastolaren historia eta gorabeherak kontatuz.

✓ *Kilometroak* eguneko bezperan, eta *Kultur Hamabostaldiari* amaiera emateko, kontzertu izugarria *Txibiston Hertzainak, Pottoka* eta *Zigor Enbeita* eta *Aritz Lopategi* bertsolari bikotearekin. Sorpresak egon daitezke. Gaueko 11etan.

✓ Eta *Plazan*, gaueko 10.30etatik aurrera, dantzaldia *Izadi* taldearekin.



## Exibiziño ikusgarria

*Ardi Txakur* exhibiziño ikusgarria burutu zuten joan den larunbat goizean *Gorla* gainean bildutako bost artzaiek eta beraien txakurrek. Eguraldiak ere lagundu nahi izan zuen eta jende de-xente hurbildu zen *Gorlara, Mizpirualde Egoitzakoak* ere izugarri gozatu zutelarik eskeinitako ikuskizunarekin. Antza denez gainera, ondo baino hobeto etorri zitzairen bertan parte hartu zutenei igandean *Oñatiko Nazioarteko*

*Txapelketan* emaitza onak eskuratzeko; *Jose Antonio Arrillaga Txatirekin* txapeldun izan genuen Oñatin eta *Jesus Mari Plazaola* Bergarako Udaletxeko langileak bigarren postua lortu zuen *Turkorekin*, *Gorlan Mendirekin* parte hartu bazuen ere. Parte-hartzaileen artean, Oñatiko probarako etorri eta, *Kilometroakeko Kultur Hamabostaldian* parte hartu nahi izan zuen katalan bat ere izan genuen.

# GIARTZU (M. Isabel Hurtado)

## Dermostetika osoko zentroa

Laser izpien bidezko erreperazioa  
Erreperagailu elektrikoa  
Korrente kapazitatiboak

Estetika Tramentuak  
Larruazal garbiketak  
Kosmetika espezialiatua

Bonl Laskurain 3, Etxabea,

Tfnoa: 76 35 71

BERGARA



*mutikoz osatutako taldetxo bat eratu eta bibolina irakastea da gure asmoa. Hortarako metodologia berri bat erabiliko dugu", esan digu Alberto Laskurain, Musika Eskolako zuzendaria.*

**Musika taldeak**

Bergarako Musika Eskola ez da Euskal Herriko musika ikastetxe bakarra, baina bada zerbaitean eredu, hain zuzen ere bertako ikasleekin musika taldeak eratzean: "eskola zabaldu genuenean helburu nagusienetarikoa bat ikasleekin taldeak osatzea zen, eta hortan dihardugu 1986. urteaz geroztik. Orkestra Sinfonikoa, Musika Banda, Akordeoilarien Taldea eta Tipleen Taldea osatu eta urtean zehar hainbat emanaldi burutzen ditugu Bergaran eta baita inguruko herrietan ere.

Horiez gain, bospasei partaidez osatutako talde txikiak, kamara taldeak, ere eraten dira.

**Kanpoko irakasleak**

22 irakasle dira eguneroko-egunero, arratsaldetako 5etatik gaueko 9ak arte eta eguerdian ordu-betez lanean ari direnak. Horietatik zortzi bakarrik dira bergararrak: "kontutan hartu akademiak zortzi urte besterik ez di-

# Belarrietatik bihotzera

## Bergarako Musika Eskolak 8 urte lanean


*Udal Musika Banda, Orfeoia, Aritzeta Abesbatza..., Bergarako tradizio musikalaren ordezkariak badira, Musika Eskola talde horiek hornitzen dituen kantera dela esan genezake. 1984. urtean Udalak, herriko kultur elkarteek, musika taldeek eta guraso batzuek herrian musika irakaskuntzaren arloan zeuden eskasiak kontutan hartuz, akademia bat sortzea erabaki zuten.*

*Harrezkero zortzi urte bete ditu Musika Eskolak.*

Ikasturtea hasi berri, 350etik gora izango dira aurten Musika Eskolan matrikulatuko direnak. Gehienak bergararrak dira, nahiz eta inguruko herrietatik ere etortzen

diren (oinarrizko mailatan ari diren Antzuolako eta Elgetako haurrek euren herrietan jasotzen dituzte klaseak). Nobedaderik izango da, espe-rientzia berri bat inda-

rean jartzea erabaki bait dute musika akademiako irakasleek: "orainarte zazpi urtetik gorakoentzako eskola bazen ere, aurten lau urteko haurrekin ekin nahi diogu. Zortzi neska-



## BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoa konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa


Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA





Lau urtetik aurrera... Musika ikasteko ez dago adinik.

tuela eta Bergaran titulodun irakasleak gutxi direla. Horregatik Donostiatik eta Bilbotik ekartzen ditugu. Urteak pasa ahala, eta bertako irakasleek tituloa lortzen doazen heinean, herrikoekin konpondu ahal izango gara".

Bergarako Musika Eskola Donostiako Kontserbatorioaren menpe dago, horregatik azterketak egitera hara joan behar dute Bergaran ikasten dutenek. Oinarritzko mailakoek (solfeo-ko bost urteak eta instrumentuetako lehen hirurak ikastén ari direnak) Bergaran bertan egiten dituzte esaminak eta gainontzekoek Donostiara jotzen dute: "aurten ez da horrela izango erdiko mailetan ari direnei azterketak hemen egiteko baimena jaso bait dugu. Hemendik aurrera ikasketak hemen hasi eta

bukatzeko aukera emango diegu eta irakasle tituluak bertan banatuko ditugu".

### Musikari izateko

Beti entzun izan dugu musikari izateko belarri ona edukitzea ezinbestekoa dela. Horrela da neurri batetan, nahiz eta Alberto Laskurainen eritziz, "belarri onaz jaio egiten da baina, gero landu egin behar da eta horretarako daude musika eskolak". Badira musika akademian hasi eta balio ez dutela ikustean utzi egin dutenak, "musikarako gai ez dena berehala konturatzen da, besteekiko atzeratuta gelditzen delako, eta noberak uzten du aspertu egiten delako".

Direnak direla, musika ikasi nahi duenari ez zaio inolako oztoporik jartzen. Zortzi urte egi-

nak baditu solfeoa ikasteko aukera ematen zaio, bi urte aurrerago instrumenturen bat hartzeko. Azterketak egiteko matrikula 2.000 pezeta inguru izaten da eta klaseak hartzeko, berriz, 5.000 pezeta ordaindu behar da hilero.

Musika Eskola erakunde pribatua izan arren (500 bazkide inguruk hilero ordaintzen duten kuotekin, ikasleek ordaintzen dutenarekin eta Udalak eta Jaurlaritzak ematen duten diru-

laguntzekin jarraitzen bait du aurrera), herriari eskeintzen zaizkion zerbitzuengatik (kontzertuak, Musika Bandaren kalejirak...) publikoa, dela esan genezake. Presidentea Jose Luis Berrondo da eta Zuzenari Batzordea Orfeoiko, Arizteta Abesbatzako eta Udal Musika Bandako, baikoitzeko ordezkari batek eta ikasleen gurasoek osatzen dute.

Aurten, 30 milioitako aurrekontuari aurre egin beharko diote.

## Musika maite dugulako...

### Jesus Mari Arriaran, 19 urte.

Aitak bultzatuta orain dela zazpi urte ekin nintzen Musika Eskolan. Gero, gustora nengoela eta jarraitzea erabaki nuen. Solfeo egin ondoren, oboe ikasten ari naiz. Oraindik bost urte geratzen zaizkit ikasketak amaitzeko, baina nere asmoa musikatik bizitzea da. Neretako oboea da instrumentorik politena.

### Leire Ibarzabal, 15 urte.

Sei urte daramazkit Musika Eskolan. Solfeo ikasketak aurten amaitu ditut eta orain, armonia ikasiko dut. Bibolina jotzen dut eskolako Orkestra Sinfonikoan. Akordeoia gustokoagoa nuen, baina bibolina hartzeko gomendatu zidaten. Horrela egin nuen eta ez naiz damutzen, oso gustora bait nago. Etorkizunean ez dakit zer egingo dudan. Datorrena datorrela, musika gustatzen zaidalako nago hemen.

### Jabi Arrondo, 18 urte.

11 urte nituela sartu nintzen Musika Eskolan. Aitak Udal Musika Bandan jotzen du eta berak sartu ninduen hemen. Tronpeta jotzen dut. Neri tronpa edo oboea gehiago gustatzen zaizkit, baina horiek sail xamarrik dira.

# ELKAR

Harrurlaga 1, Behea  
Tfnoa: 76 58 16


**Fotokopiak**  
**Enkuadernazioak**  
**Jendearentzako faxa**  
**Plastifikazioa**  
**Planoen kopiak**

# Bergarako 38 Ermitak

Bai, ondo irakurri duzu. Bergaran 38 ermita izan dira, eta hori santutxuak zenbatu gabe. Gehienak 500 urte baino zaharragoak, erdi arokoak. Egia da 38 hoietan Angiozarkoak eta Uberakoak sartuta daudela, eta orain 100 urtetik gora Elgetakoak zirela; beste alde batera, Uzarraga-Antzuola Bergarako mugetan zegoen 1391tik 1629ra, Ermiten garai sendoenetakoan, eta bere auzoetan zirenak ez ditugu sartu hemen; beraz, 38ak antzera. Arrazoa zuen antxinako idatzi batek, Bergaran 50 erlijio-etxe zeudela adierazten zuenean. Bergararari ez dezaikegu deitu bakarrik Seminarioaren herria edo textilena, t.a. baita ere ermitena, Gipuzkoa mailan ez bait dago hainbeste edukitako beste herririk. Berrigarako zatitxo honetan joango gera bakoitzaren berri ematen, banan-banan, nun zegoen edo bizirik jarraitzen duen, eta noizkoa, zer baliotakoa, zer deboziotakoa, t.a. Askori beste galdera batzuk ere etortzen zaizkigu burura: zergatik egin ziran, kristautasunaren aurreko euskaldunen erlijioarekin lokarriren bat ote dagoen, ohiturak, t.a. Hemendik aurrera joango gera labur-labur idazten.

Imanol Sorondo


Aste honetatik aurrera sailri bazuzen ere Imanol Sorondo azak buruz egluen Ale honetan ermita guztien iak etzeuden erakusten dizu Hur



## BERROYA, E. A.


INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA



Komenio 2  
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA

ailri bat aurkezten dizugu, hain  
 ozak Bergaran diren 38 ermitai  
 eguen lana.  
 n iak eta berauek non dauden edo  
 izu Hurrengoetan gehiago...



IZENA	(1) ALTURA	(2) URTEA
1. Leizariako S. Lorentzo	140	1468
2. S. Adrian	150	1598
3. Aizkoegiko Sta. Engrazia	175	1468
4. S. Fausto	125	1468
5. S. Anton	175	1554
6. Burunanoko Andramaria (San Blas)	190	1477
7. Emeterio eta Zeledonio	120	1594
8. Sta. Luzia	290	1603
9. Sto. Tomas	125	1599
10. S. Juan	175	1477?
11. S. Pelaio	175	1477
12. Irazabalgo Santikurutz	235	1548
13. Santiago	300	1527
14. Lamarianoko S. Millan	300	1468
15. S. Marzial	250	1576
16. S. Jose (S. Joxepe)	185	1728
17. S. Emeterio eta Zeledonio (Ubera)	220	1625
18. S. Paulo	215	1625
19. Sta. Ana	150	1610
20. Aingeru Guardakoa (San Martin)	150	1553
21. Altamirako Soledadeko Amabirjina	225	1644
22. Arizetako S. Miguel	378	1050
23. S. Antonio	140	1517
24. Ozaetako S. Martin	200	1468
25. Salbatore (Sta. Katalina)	180	1468
26. S. Koloman (S. Antolin)	190	1468
27. Elorregiko S. Prudentzio	160	1432
28. S. Esteban	340	1551?
29. S. Kristobal	215	1583
30. Arexkurenagako S. Martin	280	1627
31. Udariagako Asentzio	530	1672
32. Elizamendiko Andramaria	425	1562
33. S. Bartolome	540	XIX g.
34. Kanpazarko S. Miguel	560	1562
35. S. Bizente	450	1580?
36. Iriaungo S. Andres	550	1468
37. Elosuko Santutxua	610	1663
38. Elosuko S. Adrian	663	?

(1) Zein alturatan kokatuta dagoen.

(2) Zein urtetatik ezagutzen den.



# ederJU

ERA ETA PREZIO GUZTIAK ALTZARIAK  
 Barrenkale 23 Tfnos: 76 29 65 BERGARA

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

ETXE-  
-AUNDI

Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

KAFETEGIA




INTXORTA  
C  
BAYONA, 34  
TEL. 702276  
BERGARA

## Beharrezkoa da ikastetxeetan musika irakastea?




Paquita Lopez  
36 urte, administraria

Komenigarria litzateke bai, bestela solfeo akademietara jo behar izaten dugulako.



Jesus Sanchez  
68 urte, jubilatua

Bai, kultura delako eta hori jakitea ondo dagoelako, besterik ez.



Aitor Lizarralde  
27urte, enplegatua

Hasiara batean bai behintzat. Txistua eta hemengo musika ikastea ondo dago, solfeoa ere bai...



Manuela Ubierna  
53 urte, etxeandrea

Bai, oso ondo iruditzen zait, musika jakitea etorkizunerako ere ondo datorrelako.

# URKIOLA

Gizon eta emakumezkoen moda  
Zure zain gaude!!

Bidekurutzeta 42

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA



## Usain hori

Etxean nengoela, zerua ilundu zen eta bapatean kriston zaparrada bota zuen. Orduan, terrazara irten eta eurijasa hura gozatuz udazkenaren usaina somatu nuen momentu batez; segundu batzuk besterik ez ziren izan, baina nahikoak udazkenari buruz gogoeta batzuk idazteko.

Betidanik izan dut gogoko urteko sasoi hau, eta bereziki txikitan gaztainak biltzera joaten gineneko garaia. Goizean goiz jeiki, eta mendira abiatzen ginen plastikozko poltsarekin gure lan hura egitera: «ia nork biltzen zituen gaztaina gehien». Normalean, lurreen hezetan nabari bat senti zitekeen gauean botatako euriarengatik, eta haizea, udazkeneko haize hotz eta aldiberean beroa.

Orain aldiz, badirudi bi urtesasoi besterik ez dardela: uda eta negua. Egia da, orain lehen bezala, irailaren azken partera eguna moztzen dela eta freskatu; eta haizearen presentzia nabariagoa dela, baina ez lehen bezala. Lehen, udazkena neguarekiko ezberdintzen zen. Honen arrazoia, lagun batek esaten zidan bezala, Bilbon udazkenik ez esistitzea izan daiteke. Edota, orain txikitan ez bezala gutxiago aprobeztatzen dugula urteko sasoi hau.

Dena dela, udazkena helduko den esperantzaz zain nago; eta gero... edurra noiz agertuko ote den galdetuko diot nere buruari behin eta berriro.

Jon Ander Bengoa



## Sortzailea eta hizkuntza

Pentsamendua eta errealitatea lengoaiaren bidez erakutsi eta definitzen direnean, lengoia sortzaile hitz murriz eta ukatua jaiotzen da.

Abiapuntu honetatik, idazlea sorketa-diskurtsoaren garapen aurrean kokatzen denean, sortzaileak hizkuntzarekiko harremanak berriarazten ditu; hizkuntza konbentzionalaren kontzeptu berrikustapena burutu behar du. Eguneroko lengoiaarekin topo egitean, bere egunerokotasun erreal eta sailkatuaren mugak, eta hainbeste ahotan erabili eta higatutako hitzenak pitzatu egiten ditu.

Sortzaileak eraikitzen dituen hitz-sinbolo berriak hauek eta esanahien kodeak beste dimentsio bat hartzen du. Eta errealitatea ikuspuntu berri, orijinal batetik definitzen da.

Idaztearen bozkariozko jarduera isil hau desarrolatzen denean, hitz hautsiaren arteko tenkan sortzen da borroka maitatua.

Aitxus Iñarra

# ERREKI

## Erretegia

Berezitasunak:

Bixigua eta txuletak

Fraiskozuri Enparantza

Tfnoa: 76 38 51

# HALZARI

Fagor altzarien  
banatzailea.

Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA



## POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

## DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

## Zeuk galde




**34.** Emakume ezkondua naiz, ez dut lanik eta nere gizonarekin harremanak ez dira onak. Separatzea pentsatu dut baina horretarako zer egin behar dudan jakin nahi dut.

Ondo diozun bezala, lehenengo ondo informatzea komeni zaizu. Emakumeen Laguntzarako Zerbitzuak horretarako aukera eskaintzen dizu, zatoz eta abokatu batekin jarriko zaitu lehenengo kontsulta bat egin dezazun.

Aurrera egitea erabakiko bazenu, ondoren bi hilabete izango zenituzke zenbait neurri (zer tipotakoak, nork hartzen ditu, zertarako?) hartzeko. Neurri horiek, eskatzailearen arabera, ordaindu beharrekoak edo dohanekoak izango dira.

## □ Egun bat mendian

Martxa onean ibili dira aurten *Mizpidualde Egoitzakoak*. joan den larunbatean, *Altzasuko* bazkideek gonbidatuta, Egoitzako 50 bat lagun *Gorlara* joan zitzaizkigun goizetik berrietan eguna pasatzera. Ikusmin haundiz *Ardi Txakur* lehiaketa ikusi eta ondoren *Altzasun* zian zuten bazkaria. *Bazkalostean* hainbat lehiaketa, joku..., etab, egin zituzten eta, sagastume soinujoleak alaiturik, dantzarako aukera ere eduki zuten. Eguna zoragarria... eta oraindik ambiente hobea eskursionisten artean. Azken aldian ditugun egurakldi onak aprobetxatuz, hasi dira hurrengoan pentsatzen...



## □ Kamaren beldur

Ostiral gauean *Euskal Tebistako* kamarak izan genituen *Bergarako Pelotalekuan*. *ETB Kantxa* saioa zuzenean emititu zen gure herritik eta kontua da tebistako kamarakbertan izateagatik edo auskalo zergatik oso jende gutxi izan zela *Frontoian* partiduak ikusten. Oraingoan bergararrek nahiago izan zuten partiduak eta apostuak tebistatik jarraitu... Kamaren beldur ote?

**BRIKOLAIA  
AUTOMOZIOA**

Turismoak,  
kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49



□ 102 urte

Hori bai marka! Gaur ostirala *Jose Telleriartek* 102 urte betetzen ditu. Azken astetan katarro bategatik oheratuta egon den arren, gaur ohea utzi beharrean izango da bere 102garren urtea zelebratzeko *Mizpirualde Egoitzako* lagunekin batera. Badu bai Josek sekretu bat 102 urtera heltzeko, "asko ibili izan naiz... baina beti ere formal". Gaur ere Karitatearen Alaben sortzailea izan zen *San Vicente de Paul* en eguna ere ospatzen da Mizpirualden eta beraz, bi ospakizun hoiek agian *juergatxo* baten bilduko dituzte... Zorionak!



Zertan dihardute ba?

G.MURUAMENDIARAZ



41 urteko bergarar hau maiatzetik Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza saileko Elikadura Politikaren buru dugu. Germanek Lakuan lan egiten du eta orain lortu duen postu berean aurretik Iñaki Txueka egon zen.

BITTOR ALBERDI



Aurtengoarekin hiru urte daramatza jadanik 45 urteko bergarar honek Gipuzkoako Igerilari Federazioko presidente. Eta azken hiru urteotan bihar, hilak 28, ospatuko den gipuzkoar igerilarien festa Bergarara ekarri du.

**FS** oto sistema

Tfnoa: 76 00 50 ARGAZKIAK ORDUBETEAN Tfnoa: 76 00 50

**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

## Hau dok barreguria !!

Behin abadiak deittu zotsan dotriñan zebilen ume baten gurasuai eta esan zotsan:

- Hi, Paulo, hire semiai berbetarako edukaziño puxkat erakutsi biha dotsak, ze «hika» tratatzen najok eta. Badakik hori ez tala itxuria bestien aurrerako be.

- Lelo madarikatua. Horrenbeste jakin biha leuke ba. Hika tratau abade jauna? Ederki izan be. Enfin, lotsagabe xamarra be bada ta. Baiña neuk erakutsiko dotsat hari gizonak eta batez be abadiak zela tratau biha dien. Txorimalua halakua.

Etxera joan zan Paulo eta esaten dotsa semiai:

- Hi, baiña hik ezta kik abade jaunai «berori» deittu biha jakona, ala?

- Izena aldatu dotse ala?

-Ze izena aladatu eta ze otxokuarto. Izena aldatu dotselako ez, aba-

diei holaxe deittu biha jakuelako.

Ondorian mila esplikaziño emon zotsan berorika zela egitten zan entendidu zeixen.

Hurrengo egunian joan zan mutikua dotriñara eta soltau zotsan abadiak «berorikada» batzuk. Abadia asko poztu zan gurasuak bere esana aintzakotzat hartu zebelako, mutikuan edukaziñua poliki-poliki leunduaz joango zalakuan. Hala ta be bere artian pentsatzen zeban «zuka» egingo balotsa be nahikua izango zala eta zera preguntau zotsan mutikuai modu onian:

- Nork esan dosk «berorika» egin behar jatala?

- Aittak esan jostak hiri «berori» esateko.

\*\*\*

J.M. Elexpuru

## Antzinako kontuak

### Festak eta irudiak

Pix-Pol izeneko gazte taldeak, bere egon tokia, Inpernuko tabernan zeukan. Han zeuzkaten musika tresna, jantzi eta osantzeakoak, kalera txukun jantzita atera behar zuten. Talde ederra eta benetan alaia, Pix-Pol.

Santa Marina eguna heldu zan, urtero bezala, eta Oxirondo-ko Jai Bartzordeak eskatu zion Pix-Polari, bizikleta laisterketa, zuzendu zezatela beraien kontu. Baietza, eman ondoren, hasi ziren gertakizunak bezperatik gertatzen. Lotu zuten soka, Inpernupeko lehen bizitokiko leiotik, "Barrenengo" sakaperaino. Sokak, erdi-erdian zintzilik, trapu bat zeraman eta bertan jartzen zuten: META.

Domingo, zapiari begira egon zan luzaro, baina ez zuen ezer ulertzen. Han agertu zan gazte bati galdetu zion.

- Zer ipintzen jok hor?.

- Gaur gauerdixan, zuen etxiari su eman behar




dotsela.

- Bai eh!- dino, Domingok.

Sartzen da bere etxera, hartu bizkarrian belarra ebakitzeko sega, kerten da guzti, etxe inguruan ibilaldi bat egin zuan, etsai erronkalaririk ote zan edo ez. Segidan, eseri zan etxe ondoko harmailan, sega bere aldemenean zuelarik, eta han egon zan gauerdirarte. Inor agertu ez zenez gero, oheratu zan Domingo.

Antonio Urzelai

# AE



ARRASATE

## ELKORO ANTENAK

✓ TB Satelite bidez

✓ Telebanaketa

Tfnoa: 79 18 86



## ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa; 76 20 66  
BERGARA



## Txinpartak

✓ *Bergara K.E.*ko futbol talde nagusiak ez zion hasiera ona eman aurtengo denboraldiari. Igandean hutsna berdindu zuen *Amaikak-Bat* taldearen aurka.

✓ *Anjel Bideluzek* garaipen berri bat lortu zuen *Humaraneko Igoeran* eta *Euskadiko Txapelketa* eskuetan dauka dagoeneko.

✓ *Sar ezazu kirola zure bizitzan* lemapean Bergarako *Udal Kirol Zerbitzuak* hainbat kirol iharduera antolatu ditu 91-92 denboraldirako, herriko gazte eta nagusientzat.

✓ *Marino Lejarreta, Unsain* (Ikas Pilotako arduraduna) eta *Sabino Padilla* Banestoko medikua *Kultur Hamabostaldiaren* barruan antolatutako *Kirolari* buruzko mahai-inguruan izango dira asteazkenean UNEDen. *Mikel Olazabal* ETBko Kiroletako arduradunak moderatzaile lanak egingo ditu.

✓ Igande honetan, hilak 29, *Mendi Bizi-kleta* proba bi izango dira; bata *Angiozarren* goizeko 12 t'erdietan eta bestea, *Elgetan* goizeko 9etatik aurrera.

✓ *Bergara K.E.*ko Rejionaleko taldeak Donostian jokatu du *Haizearen* aurka igande goizean.



## Igerilarien festa

Bihar larunbata *Gi-puzkoako igerilarien festa* ospatuko da *Txi-biston*. Ekitaldiak goizeko 11 t'erdietan hasiko dira igerilekuetan 40 bat igerilarik jokatu duten triatloi probarekin. Handik *Txibistora*, bertan 500 bat igerilarik euren urteroko festa ospatuko dute; bazkalostean, joan den denboraldiko igerilari hoberenei esariak emango zaizkie.

*Bergara Igerilari Elkarte*ko 50 igerilari inguru ere festa horretan izango dira eta espero daiteke baten batek sariren bat jasotzea. Bestalde, hastear dagoen denboraldi honetan 20 urte betetzen direla *Bergara Igerilari Elkarte*a sortu zenetik eta hori dela ta *Elkarteak* Euskadiko *Txapelketa* Bergaran jokatzeko eskakizuna egin du.

## Goi mailako eskubaloia

*Arrate Xerox* eta *Mepamsa San Antonio* taldeek primerako eskubaloia erakutsi zuten joan den asteazkenean *Kilometroaken* alde. Jende dexente izan zen *Labe-garaietako Kiroldegan* eta, nahiz eta lagunarteko partidua izan, bi taldeek garaipenaren bila aritu ziren, azkenean eibartarrak 23-22ko emaitzarekin nagusitu zirelarik. *Abelek* azken segundutan penalti jaurtiketa baten bidez berdinketa lortzeko aukera izan zuen baina *Iruñeako* jokalaria *kale* egin zuen.



# LARRAÑAGA

## AUTOGIDARIEN ESKOLA

Artekale 22

Tfmoa: 76 16 63

BERGARA



*Luis de Eleizalde Ikastolako umeak. 1970, urtarrila*

**B** atzuk irrifartsu beste batzuk serio, halaxe jarri ziren formal-formal erretratugilearen aurrean, gerraosteko lehenengo ikastolako neska-mutikotxoak.

Pol-Pol gainean zegoen Koldo Eleizalde ikastola eta artean 1969/70 ikasturtea legeztatu gabea zenez, haurrok ofizialki Urretxun matrikulatuta zeuden.

Handik lasterrera, 1971n, Koldo Eleizaldek, Colegio Santa Infancia izenekoarekin eta Kontxita Maiztegi frontoian zuen eskolarekin batera Telesforo Aranzadi ikastola sortu zuten eta orain dauden lekura, Seminariora, pasa ziren guztiak.

Argazkian datozenen izenei dagokienez honako hauek dira, ezkerretik eskumara:

**Makurtuta:** Marina Hernando, Bittor Zangitu, Jon Ander Larrañaga, Iñaki Zangitu, Nerea Larrañaga, Jose Jabier Agirre, Xabier Errasti, Antonio Astiazaran eta Iñaki Arregi.

**Zutik:** ezezaguna, Iñaki Barrutia, Elisabet Bergara, Ane Miren Bengoa, Isabel Sanz, Mikel Laskurain, Miren Narbaiza, Ane Aranburu ( G.B. ), Kristina Larrañaga, Miguel Angel Elkoroberezibar, Maite Agirrebeña ( andereñoa ) eta Elias Aranburu.

*Estepan Plazaola  
Argazkia: Serafin Esnaola*



- Marko-jartzeak
- Posterrak
- Litografiak

**Nikon**

Banatzaile ofiziala

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 58 05

**KIÑU**

Errebelatu azkarra

*Laborategi  
profesional  
onenetarikoa*



**ETXEBIZITZA**

- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera 764252
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisu txiki edo buardilla bat hartuko nuke alokagailuan. 763270
- Pisua salgai; garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

**LANA**

- Uberan neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 764149
- Umeak zaintzeko neska euskaldun bat behar da. Deitu: 762981. Elisabet.
- Neska euskaldun bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu: 765190. Gaueko 8etatik aurrera.
- Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu: 762740/764552
- Neska euskaldun bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 760257. 7-1eta 4.30-8.

- Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu: 765482
- Produzio saileko injeniero-tekniko batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913.
- Neska euskaldun bat behar dut haurrak zaintzeko. Deitu: 761852 edo 765261.
- Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke. Deitu: 742063.
- Kontabilitatea eramango duen pertsona bat behar da. Deitu:

- rea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 7625 12
- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.
- Siberian-husky's arrazako txakurkumea salgai. Deitu: 761479
- 3 pertsonentzako iglu kanping-denda berria salgai. Deitu: 763495
- Karabana berri-berria salgai 5 pertso-nentza-ko abanzeeta guzti. Deitu: 761388.
- Parapente STROM-25 berri-berria salgai. Deitu: 763738.
- Skate-ko patinete berri-berria salgai. Tabla Hard-Times, ejeak Gold-Wine eta erruberak Mini-Rat. Deitu: 762682.
- Ford- fiesta BI-U salgai. Deitu: 763649.

**SALDU-EROSI**

- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenado-

**Hildakoak**

*Ciriaca Gallastegi Azkarate*  
86 urte, irailak 22an  
*Pedro Maria de Pedro Arrieta*  
56 urte, irailak 23an  
*Dolores Llano Nieto*  
81 urte, irailak 26an

**Jaiotakoak**

*Sara Gonzalez Martinez*  
irailaren 21ean

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**


**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**MAKAILO**

**Makallau ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

lbargaral 15

# Kilometroak 91 urriak 6, BERGARA



*Igo tipi-tapa  
euskararen aldapa*